JANGELA ZERBITZUA 2026-2027

ENPRESA ARDURADUNA: AUSOLAN

ESKOLAKO ARDURADUNA: Aintzane Irastorza / Josu Oiaga
Harremanetarako: jangela@astieskola.eus

JANGELAN IZEN EMATEA

OHIKO BAZKALTIARRAK
Ohiko bazkaltiarrak ikasturte osoan zehar eta egunero edo maiztasun jakin batean jangelan bazkaltzen duten ikasleak izango dira. Horiek ikasturte hasieran izena eman beharko dute ikasturte osorako.
NOIZBEHINKAKO BAZKALTIARRAK
Izena emateko eskolara deitu edo email bat bidali beharko dute aurreko egunean, eta arratsaldeko **14:30ak baino lehen** haurraren izen-abizenak eta maila adieraziz. **943 55 12 62 / jangela@astieskola.eus** Tarteka geratzen diren ikasleek, jangela zerbitzuan izena emateaz gain, tutoreari ohar baten bidez jakinarazi beharko diote jakinaren gainean egon dadin.

JANGELA ZERBITZUAREN KUOTAK ETA ORDAINKETA

• **Ohikoen kuota**: 4,60 € eguneko – **80,50€ko** kuota finkoa 10 hilabetetan. • **Noizbehinkakoen kuota**: **5,20€** eguneko.
Kobrantzak banku-helbideratzearen bidez egingo dira zerbitzua erabili eta hurrengo hilabetean.
Urtero **jangela-beka** eskatzeko aukera dago ikasturte hasieran argitaratzen den deialdiaren bidez (Hezkuntza Saila_Bekak).
Ordaindu gabeko kuotarik balego, araudiaren arabera, hilabete bateko kuota atzerapena duten ikasleek ezin izango dute jangela erabili, aurrez arduradunarekin harremanetan jarri eta arrazoiak ematen ez badituzte.

AZPIEGITURAK

Jangela txikia: Beheko solairuan kokatua, HH2, HH3, HH4 eta HH5eko ikasleentzat.
Jangela handia: Lehen solairuan kokatua, LH1–LH6 bitarteko ikasleentzat.

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

Jangela zerbitzua **irailaren 7an** hasi eta **ekainaren 18an** amaituko da.

JANGELAKO TXANDAK ORDUTEGI OSOAN (goiz eta arratsaldez)

JANGELA TXIKIA		JANGELA HANDIA	
12:30	HH2* – HH3	12:30	LH1 / LH2 / LH3
13:35	HH4 – HH5	13:35	LH4 / LH5 / LH6
Siesta egiten ez duten HH2ko haurrak bazkaldu ondoren 13:30ean jasoko dira.			

* HH2 irailean egokitzaldiko ordutegia beteko dute

JANGELAKO TXANDAK ORDUTEGI TRINKOAN (goizez bakarrik)

JANGELA TXIKIA		JANGELA HANDIA	
13:00	HH2* – HH3	13:00	LH1 / LH2 / LH3
14:00	HH4 – HH5	14:00	LH4 / LH5 / LH6
Ordutegi trinkoan HH2 eta HH3ko haurrek ez dute siestarik egiten.			

* HH2 irailean egokitzaldiko ordutegia beteko dute

ORDUTEGI TRINKOAN HAURRAK JASOTZEKO LEKUAK ETA ORDUAK

MAILA	LEKUA	ORDUA
HH2*	HH2ko geletan	14:00 edo 14:45
HH3	Patio txikian (sarrerako aterpean)	14:45
HH4–HH5	Patio txikian (hondarlekuan)	
LH1 – LH6	Patio handian (mailari dagokion bilgunean)	

* HH2 irailean egokitzaldiko ordutegia beteko dute

ANTOLAKETA

- Txandak ikasle kopuruaren eta adinaren arabera antolatzen dira jangela bakoitzeko edukiera kontuan izanik. Haur bakoitzak dagokion txandan bazkaldu beharko du eta ezingo da aldaketarik egin.

- Jangeletarako sarbidea, sarrerak... antolatuko dira ikasleen itxarote-ilarak eta haien arteko gurutzatzeak saihesteko.

- Bazkari txanden artean eta zerbitzuaren ondoren ukipen-elementu guztiak garbituko dira eta ikasleak iritsi aurretik jangela aireztatuko da.

- Atseden orduan, ikasleak mailaka banatuko dira jolas-gune desberdinetan:
    - HH2-HH3: Siesta geletan / Patio txikian
    - HH4-HH5: Patio txikian.
    - LH1-LH6: Patio handian/frontoian

- Atsedenaldirako ikasleek etxetik irakurgaiak, mandalak, eskupilota, ping-pongean aritzeko materiala edota ziba ekarri ahal izango dituzte. Gainerako materiala eskolak eskainiko du: soka, goma...

- HH2 eta HH3ko ikasleek siesta egiteko aukera izango dute ikasturtean zehar, jardun trinkoko egunetan izan ezik. Jangela zerbitzu orduan ikasle batek momentu jakin batetik aurrera siesta egiteko beharrik ez duela ikusten bada, epe batean baloratu ondoren, tutorearen bitartez familiari jakinaraziko zaio. Siesta egiten ez duten haurrak patioan egongo dira.

- Guraso Elkarteak antolatutako eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu ahal izango dute HH4tik gorako ikasleek.

- Gainontzeko eskolaz kanpoko jardueretara atera ahal izateko baimen idatzia aurkeztu beharko da. Baimen eredua eskolan eskuragarri egongo da.; baimen hori gabe ez da eskolatik ateratzen utziko. Arrazoiren batengatik haurren bat eskolaz kanpokoetara joango ez balitz, begiraleek ez dute horren ardura hartuko eta eskolako patioan geratuko litzateke.

- Jangela-zerbitzua erabiltzen ez duten haurrak zerbitzu horren ordutegi barruan ezin izango dira eskola-eremuan sartu.

MENUAK

- **Oinarrizko** menua eta bazkaltiarren **ezaugarrietara egokituta**ko menuak zerbitzatzen dira (alergiak edo intolerantziak, erlijio-sinesmenak...). Ikasle batek medikuak aginduta menua egokitzeko beharra izanez gero, horrek emandako osasun-ziurtagiria aurkeztu beharko du. Horrela, enpresari menu berezia eskatu ahal izango zaio.

- Hilabeteko menua eskolako web orrian ikusgai jarriko da, hilero.

- Jangelan, **enpresak ekartzen dizkigun menuak** besterik ez dira onartuko. **Ezingo da kanpoko janaririk sartu ez eta atera ere.**

INFORMEAK

- Abenduan eta ekainean jangelako jarraipen txostena bidaliko da.
- HH2 eta HH3koek eguneroko martxaren berri izango dute ere, haien ikasgeletako leihoetan ikusgai jartzen diren informazio-taulen bidez.

OHARRAK

- Bazkaltiarren bat etorriko ez bada, telefonoz edo emailez abisatu behar da jangela zerbitzuan (garrantzitsua, ahal izanez gero bezperako 14:30ak baino lehenago).

  943 55 12 62 / jangela@astieskola.eus

- Jangelatik lehenago ateratzeko, edota bertara beranduago sartzeko, justifikatutako arrazoi bat argudiatu beharko da.
- Jangelako begiraleek ezin dute botikarik eman.

ARAUDIAK

BIZIKIDETZA-ARAUDIA

Eskolako jangela-zerbitzuko erabiltzaile eta langileen bizikidetza zaintze aldera, zerbitzuan zehar ematen diren jokabide desegokiak eskolako jangelako barne-araudian zehaztutako neurrien arabera zuzenduko dira.

ARAUDI OROKORRA

Hezkuntza sailaren menpeko eskola-jantokiak

BEGIRALEAK MAILAZ MAILA

TALDEA	TUTOREA_	HEZITZAILEA
HH2A	MAITANE A. / OIHANA	MAIALEN
HH2B	BEGOÑA E.	NEREA
HH2C	ANE E.	MIKEL
HH2D	LEIRE	ANA GO.
HH2 laguntzaileak		ESTI / NAIARA eta ANNIA / RAQUEL
HH3A	IKER U.	OIHANE
HH3B	LOLI G.	AMAIA P. / UXUE
HH3C	ROXALI F.	Mª JOSE U.
HH3D	RAMON L.	ANA GA.
HH4A	EMMA S. / YURIMA	ZUHAITZ
HH4B	VIRGINIA J.	JOSUNE
HH4C	SUSANA A.	ANE
HH4D	MAITE G. / AINHOA	MARIA A. / ERIN
HH5A	ELENA C.	LEIRE S. / MAITE
HH5B	AMAIA A.	KRIS
HH5C	NORA E.	LEIRE DEL V.
HH5D	ENARA G.	OLATZ

TALDEA	TUTOREA	HEZITZAILEA
LH1A	AMAIA R.	MAITE I. SILVIA / LAINE
LH1B	AINHOA A.	
LH1C	AXUN O.	
LH1D	IDOIA A.	
LH2A	JUDITH G.	KONTXI / IRAIA ERIKA
LH2B	PATRICIA	
LH2C	NEREA G.	
LH3A	ANA H.	NEKANE AITZIBER
LH3B	LOHIZUNE I.	
LH3C	IRATI E.	
LH3D	AINHOA F.	

LH4A	ITXASO I.	MADDI / NAIARA SERGIO / ENERITZ PILI
LH4B	MAIDER O.	
LH4C	ESTITXU G.	
LH4D	MAIXABEL I.	
LH4E	ISABEL	
LH5A	GOIZALDI Z.	EDERNE JESSICA
LH5B	MAIDER M.	
LH5C	INMA V. / ALEX	
LH5D	OLAIA A.	
LH6A	IÑAKI	AINITZE
LH6B	IÑIGO	
LH6C	AINHOA GY. / LIDE	
LH6D	ASIER A.	